

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1995ko abenduaren 29a



Nafarroako mendi publikoak: 1850-1935

■ Gaur egun, Nafarroako basoen % 45 pribatuak dira, Nafarroako Basogintza Elkarteak plazaratutako datuen arabera. Gaurko egoera ulertzeko, hala ere, ezinbestekoa da aurretiko errealitatea ezagutzea. Iñaki Iriartek hartu du, hain zuzen, Nafarroako mendi eta basoen garapenari buruzko

ikerketa egiteko lana. Zehazkiago erratearren, XIX. mendearen erdialdetik hasi eta 1935. urtera arte Nafarroako mendi publikoen bilakaera aztertu du iruindar honek, irailean Zaragozako Unibertsitatean aurkeztu zuen tesian. Honi buruz mintzatu da gurekin. ■

Lur deslaia

PILI YOLDI



San Salvador (El Salvador). 1994ko urtarrilaren 1a. Urteberri eguneko goizaldean, gaua parrandan eman ondoren, guk hartu beharreko norabidean zihozen autobus guztiak baterik pasatzen ziren. Udan bezala, saltzaileak, umeak, familia guztiak itsasaldera abiatzen ziren goizeko seietan.

Guk gezurtzat hartutako guztia egia omen zen: urte berriari harrera hondartzan egiteak zorte ona ekartzen duela zioen Manfredok, Soyapangon bizi zen lagunak. Eta guk barre egiten genuen, gure turista inozo eta sineskoraren papera bete nahi gabe. Baina hortxe zegoen frogia: San Salvador hiriburutik hogeik kilometrora eta Ozeano Pazifikoan dagoen La Libertad herrira joateko autobusak bete-beterik.

Ertamerikako herrialde gehienetan, Karibetik edo Pazifikotik hain gertu daudenez, hondartzaldera joaten dira Urteberrian, urtea hasteko modu hoberik ez baitago.

Hamaikagarren autobusean igotzea

Beste urte berriez

lortu eta berehala irentsi egin gintuen bidaiarien arteko giroak. Zutik joan beharrean, gehienak eserita zeuden, edo hobeto esanda, etzanda autobuseko zoruan. Urtean zehar ikusten ez den elkartasuna erakutsiz, bidaiariak itxura okerrera zeukatenei uzten zizkieten jarlekuak, denak gaua luzatu nahian, jadanik gogor jotzen zuen eguzkiari aukera eman nahi gabe. Tristuraz eta abandonuz bateriko abestiak, gizonen eskuak aldamenekoekin kontrolik eduki gabe, logurea eta barruko lainoa nagusi, hondartzara iristerakoan.

Bainu bat burua argitzeko, olatuetan jolasten —'zertan gaude hemen ordu honetan?' galdezka, neuronak freskatu ondoren— eta lanean hasten zen *txiringito* bateko andreak berpizteko moduko arrain salda bana jarri zigun esku artean zigun.

Jendea guardasolen azpian pilotzen zen, eguzki izpi asasinoetatik —tropikoan eguzkiak jotzen duen moduan—

ezkutatu, errealitatetik kanpo egongo bagina bezala, zoragarria zegoen itsasoa.

Gizonak zaintzea zen hantxe zeuden emakume gehienek lana, taldean joandako neska gaztetxo batzuk kenduta, horiek lagunak besoetan ari baitziren hondarréan murgildurik. Umeak oihuka, arrain frijituaren usaina, itsaski koktela, bestondoa kentzeko berriro edateari ekin baino lehen, mundu osoko hondartzak guztietan dauden kaioren hegaldian begirada galduta... Pazifikoaren sabeletik hildako bat atera zutenean ametsetatik kanporatu gintuzten.

Ezin da ezer egin. «*También andaba bolo*» zioen ertzerak hurbildu zen mariatxi bateko tronpeta jole nekatuak, gure ondoan zegoen mahaira bueltatzekoan. Urteberriko egunkari guztietako notizia arrunta baita: «Aurten 64 lagun ito dira gure hondartzetan, alkoholarekin eraginez». Egia da ezin dela ezer egin. Egoera horretan itsasoak ezтики erakartzen omen du arima. X

✂ GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Iruñea: Nahi ta Nahiez taldeak eta Bittor Aiape abeslariak kontzertua eskainiko dute datorren asteazkenean, urtarrilak 3, Gazte-
txean, arratsaldeko 7.00etan.

Burlata: Nafarroako Akordeoi Orkestrak kontzertua eskainiko du Hilarion Eslava musika eskolan. Emanaldia arratsaldeko 8.00etan izanen da.

Sunbilla: Iparraldeko Skunk taldeak kontzertua emanen du Uli Beltzak elkartearen. Emanaldia gaur izanen da 22.00etan.

ZINEMA

Iruñea: Nafarroako Museoan, haurrei eskainitako zinema zikloaren barruan *Exploradores* filmea eskainiko da gaur, goizeko 11.30etan, eta sarrera dohainik izanen da.

Burlata: Txipi-Txapa ludotekan, haurrei eskainitako zikloaren barruan *Oliver* pelikula emango dute gaur, 18.00etan. Bihar, berri, *Las aventuras del Barón Fantástico* filmea eskainiko dute ordu eta toki berean.

Iruñea: Beldurrezko eta gore zinemaren lehen erakusketa antolatatu du Eguzki Bideoak. Emanaldiak Gazte-
txean izanen dira, urtarrilaren 2tik 6ra arte. Sarrera 200 pezetakoa da eta emanaldiak 12.00etan, 18.00etan eta 20.00etan izanen dira.

Corella: Maria Villar Fundazioan *Los picapiedra* filmea eskainiko dute umeentzat. Pelikula 17.00etan izanen da datorren asteartean, urtarrilak 2.

ANTZERKIA

Tafalla: Tafallako kultur patronatuak antolatutako, Antzezkizuna taldeak *Josetu y su extraño viaje al país de los colores* txo-
txongilo antzezlan eskainiko du. Emanaldia gaur izanen da 18.00etan, eta sarrera dohainik da.

Iruñea: *Cuento y no acabo* antzezlan taularatuko du Nafarroako Antzerki Eskolak gaur, bihar eta urtarrilaren 2an, 3an eta 4an. Emanaldiak arratsaldeko 6.30etan izanen dira. Antze-
lanaren ostean txokolate jana izanen da.

Zangoza: Gwynfyd dantza eta antzerki konpainiak *Sonidos de otros mundos* taularatuko du 20.30etan, Antonio Eslava institutuan.

Corella: Alhama antzerki taldeak *Mari Errauskin* lana taularatuko du. Antzezlan arratsaldeko 5.00etan izanen da Maria Villar Fundazioan.

BESTELAKOAK

Elizondo: Baztango ikastolaren 25. urteurrena dela-eta, bihar Elizondoko koralaran emanaldia izanen da; ikastolako haurrak kantari ariko dira eta akordiolariek ere joko dute. Festa herriko Kasinoan izanen da, arratsaldeko 5.30etan.

nafarkronika

Jon Alonso

Aurrekontuak

Hala ere, gauza batez hagitik seguru nago; keinuak keinu, hitzak hitz, boterean dauden agintarien nahiak nondik nora doazen jakiteko termometro zehatz bakarria, gure sosekin zer eginen duten adierazten duen papera da. Eta Nafarroako Gobernuaren aurtengo aurrekontu proiektuak bizitzaren gorakadaren gaineko indizea ere ez die aplikatzen ez Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiari ez Hezkuntz Departamentuko Euskara Zerbitzuari ere (...), horrek neri gehiago balio dit borts adierazpen ponposok eta hamaika agerpen disdiratsuk baino.

Aingeru Epaltzaren hitzak dira, Nafarkarian, eta 1992ko aurrekontuaz ari da. Beste garai batzuk ziren, noski. Suge Liluratzaillearen garaiak, zehatz esanda, delako Suge Liluratzaille horrek Oñatin lau hitz euskaraz murduskatu eta gaseosak hankartartean gainezka egiten omen zigun? zion? zien? zizuen? garaiak.

Afera, orduan, latza zen, latza zenez: «Ez baitira gazte mokoguri eta bizitza lastu gabeak Alliren egintza honekin miraz gelditu diren guztiak. Aldiz, haien artean badira (...) politikaren munduan urte puska egin dutenak ere. Eta, hori ikusita, inozokeria zerbateraino erroterik dagoen herri honetan lehen dudak sortzen zaizkit oraintxe». Egia da, azken esaldian esaten dena behintzat; Epaltzak inozotzat, are, ments erabatekotzat hartzen gaitu.

Orain gauzak aldatu dira. Eszenatoki politikoa eta horrelako gauzak, esan nahi da. Gainerakoak igualtsu, Suge Liluratzaillea egon edo Zakuto Harra-
paria egon. «Hemengo sugogorriak dantzan hasiko dira berriz gure Juan Kruzek dultzaina ezpainetara eramane orduko (*)». Profetizatu zuen Epaltzak. Inor ez izaki profeta bere herrian. Dantzakideak oso bestelakoak direla ikusirik, joan den igandean, EGUNKARIAN honela idatzi

zuen; «1996.eko aurrekontu proiektuan ez da algaraka hasteko modukoa euskarari ematen zaien tratamendua»; gauzek bere betiko hartan segitzen dutela epelki aitortzeko modua baizik ez. Autokritika leuna izatera iristen ez dena, behialako sugogorri, suge liluratzaille, gazte mokoguri, politikari inozo, eta esker emate izkutu eta susmagarrien artean.

Euskara, Nafarroan, azken garai hauetan, jaurtitzeko gisa erabili dute batzuek, zer mespretxagarria izan da gehienontzat, arma eta hainbatek truke moneda bezala erabili du, artikulua honen bidez adierazi nahi izan den bezala; baina ez da inoiz, sekula ez, eskubide demokratikoen subjektu izan.

Eta horixe da batzuek —gutxiengoak, bistan da—, oraindik eskatzen duguna, unean uneko egokieratik, koitunturatik eta demagogiatik haruntzago.

(*) *Finean, badute elkarrizkeria eskertu.*



asteko pertsonaiak



Francisco Javier Tuñon
Kontu Ganbarako presidentea

■ Francisco Javier Tuñon Kontu Ganbarako presidentea 1996. urterako aurrakusten duen lana aurkeztu zuen asteartean Nafarroako Parlamentuan. Tuñonek errandakoaren arabera, herrialdeko Kontu Ganbarak 33 informe egiten ditu 1996. urtean. Horien artean alpatzekoak dira 1995eko kontu orokorren azterketa, Nafarroako Suhiltzaileen Partzuegoari buruzkoa eta Administrazio langilegoaren kudeaketaren zenbait atal besteak beste. Bestalde, Kontu Ganbarak 1995ean 19 txosten egin dituela azaldu zuen Parlamentuan erakundeko presidentea. Kopurua uste baino urriagoa izan da; hasiera batean 27 ziren egitekoak, baina denbora falta dela-eta heldu den urtean akituko dituzte.



Antonio Perez Prados
NUPeko errektorea

■ Antonio Perez Prados errektorea zuzentzen duen Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) orain arteko izena aldatzeko eskatu die Nafarroako Gobernuari zein Legebiltzarreko alderdiei. Unibertsitateko klaustrak erabaki zuen izena aldatzea, azkeneko bileran. Hala ere, azken hitza herrialdeko Parlamentuak izanen du, horrek bakarrik baitu eskumena. Aspaldiko nahia du Nafarroako Unibertsitate Publiko deritzonak beste izen bat erabilteza oraingoaren orde. Bi arrazoi eman dituzte, besteak beste, NUPeko arduradunek: postaz bidaltzen diren izkribu edo mezuetan Nafarroako Unibertsitatearekin (pribatuarekin) nahasten dela, eta NUP dela publikotasuna esplizituki aipatu behar duen zentro bakarra.

ahaztu gabe!



BIDEO EMANALDIA

Atarrabia: Zapatisten altxamenduaren bigarren urteurrena dela eta, Chiapasen Aldeko Elkartasun Batzordeak bideo emanaldi bat antolatu du urtarrilaren baterako. Atarrabiako zinema aretoan izango da, arratsaldeko zortzietatik aurrera. Han elkartuko direnek topa egingo dute zapatisten eta Chiapasko herriaren eskakizunen alde.

Chiapasen Aldeko Elkartasun Batzordea Atarrabian sortu zen uda partean, Rodolfo Izal bertako apaiza Mexikotik kanporatu zutenean. Joan zen astean giza eskubideen aldeko sinadura bilketa hasi zuen, Mexikoko Gobernuari bost eskaera eginez: Chiapasko herritarren aurkako erasoak bertan behera uzteko, San Cristobal de las Casasko elizbarrutiaren kontrako errepresioa gelditzeko, gatazka elkarrizketaren bidez konpontzeko, indioen eskakizunei kasu egiteko eta, azkenik, kanporatutako apaizei Mexikora itzultzen uzteko. Chiapasen Aldeko Batzordeko zenbait kide Antoniuttin, artisauen azokaren alboan, izango dira gaur eta bihar sinadurak biltzeko. Aipatu eskaerakin ados bazaude, hara hurbiltzea besterik ez duzu.

adi!

IRRATINOBELA

Euskal Herria Irratia: 'Goñitarrek ere kardua jaten dute Eguberrietan' irratinobela emango du Iruñeko Euskal Herria Irratiak, atalka, Eguberrietan. Iruñeko familia peto-peto batén gora-beherak izango dira: Alta: Sebastian Goñi. Ama: Fermina Erize. Seme-alabak: Vanesa, Jesus Angel edo Gotzon eta Zigor. Izeba: Maria Puy, Lizarratik etorriko dena Gabonak Iruñean pasatzen. Beste pertsonaia batzuk ere ataratu dira: aitaxi-amaxi, adiskideak. Gaur izanen da Euskal Herria Irratiaren lehenengo irratinobelaren bigarren kapitulu, Zokobetailu saioan.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Bera

Musika emanaldi ugari Eguberrietan

Peio Ospital, Mixel Ducau eta Caroline Phillips izanen dira gaur Beran

Eguberriak direla eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Beran, Lesakan eta inguruko beste hainbat herritan. Beran, Peio Ospitalek eta Mixel Ducau eta Caroline Phillips senar-emazteak eskainiko dute musika emanaldia. Bihar, berri, Deabruak Teilatuetan Tolosako laukote gazteak kontzertua eskainiko du Lesakako Atxaspi ostatuan.

Jon Abril / Bera

AURTENGO Berako Udal Batzordearen ekintzei bukaera emango die gaur iluntzeko zortzi eta erdietan eginen den kontzertuak. Peio Ospitalek Iparraldeko kantu zaharrak abestuko ditu lehen zatian eta ondotik, Mixel Ducau eta Caroline Phillips bikoteak lehen diskoa aurkeztuko du. Mixel Ducau Errobiko kantaria izandakoa da eta, egun, Zaldibobo taldeko kantaria ere bada. Bere emaztea Carolinerekin batera, ibilbide berri bati ekin dio. Caroline Phillips jaiotzez estatu-batuarra da eta orain hiru urte etorri zen Euskal Herrira, euskara ederki ikasi duelarik.

Berako Kultur Etxean izango da kantaldia eta erritmo mantso zein biziagoak nahasiko dituzte Peio Ospitalek eta Mixel Ducau eta Caroline Phillips.

Bihar, berri, Lesakako Atxaspi



Deabruak Teilatuetan taldea Lesakan izanen da bihar.

AXIER ROMO

ostatuan Tolosako Deabruak Teilatuetan taldeak *Itsumutugor* lana aurkeztuko du. Rocka eta heavy-aren inguruan dabilzan doinuak jotzen ditu laukote gazte honek.

Urtezaharrean, kantu herrikoiek eta ohitura zaharrek hartuko dituzte kaleak. Arratsaldean, haurrak, Beran *Glin-Glan*-arekin eta Etxalarren *Ela-Ela*-rekin aterako dira eskean. Gau partean, Beran, Lesakan eta Igantzin Diostesalbea kantatuko

dute karriz karriz herri ba-koitzeko mutilek.

Errege egunaren bezperan, berri ere musika emanaldi antolatuak itzuliko dira. Etxalarko herriko ostatuan, gaueko hamar t'erdietatik aitzinera Berako Fundizion talde-berriak emanaldia eskainiko du. Goi mailako hiru musikaririk osatzen dute taldea eta blues-tik hasita, funky-ra doan fusio musika lantzen dute, batik bat.

Egun berean, baina ordu erdi

geroago, Berako herriko ostatuan ere, Berako Gutariko bat, Elizondoko Rigor Mortis eta Elgoibarko Zokoan taldeekin rock kontzertua izango da.

Azkenik, eta Eguberrietako musika emanaldiekin bukatzeko, Lesakako Zialdo ostatuak bertze talde berri bat hartuko du. Berako eta Lesakako hainbat gazte sortu duten Big-bandaren estreinaldia izango da. Errege egunean izango da hau, iluntzeko hamaiketarik aitzinera. X

Lakuntza

Euskarari buruzko ikastaroa asteazkenetik aurrera abian

■ Sakanako Mankomunitateak ere bultzatu du

Erredakzioa / Iruñea

LAKUNTZAKO Euskara Batzordeak eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskarari buruzko ikastaroa antolatu dute. Ikastaro honen bidez, euskararen inguruan sortzen diren zenbait arazori buruz gogoeta egin eta konponbidea bilatzen saiatuko dira antolatzaileak eta parte-hartzaileak.

Gai honi buruz hainbat elkartetako ordezkariak emango duten hitzaldi sortak osatuko du ikastaroa. Asteazkenean, hain zuzen, *Euskararen erabilpena gazteen artean* izeneko hitzaldia eskainiko du Arrasate Euskaldun Dezagun taldeko kide den Javier Osaetak. Bihamunean, urtarrilaren 4an, alegia, Yolanda Olasagarre Sakanako Euskara Zerbitzukoak *Euskara elkarteak eta batzor-*

deak Sakanan izenburuko gaia jorratuko du.

Otsailaren 10ean jarraituko du euskarari buruzko ikastaroak. Egun horretan, Garbiñe Petriati Sakanako AEK-ko kideak *Euskararen ezagutza eta motibazioa heldu eta gurasoen artean* izeneko hitzaldia eskainiko du. Halaber, ikastaroaren antolatzaileek noiz izango den oraindik zehaztu ez badute ere, Arrasate Euskaldun Dezagun taldeko kide batek aztertuko du euskararen erabilpena zein den kaleko giroan.

Ikastaroa Lakuntzako udal-txeko batzar gelan izanen da, arratsaldeko bostetatik aurrera. Parte hartu nahi duenak Sakanako Euskara Zerbitzura dei egin dezake 46 48 40 telefonora, goizeko zortzietatik arratsaldeko hirurak bitartean, edo Lakuntzako Euskara Batzordera, 57 62 75 telefonora. X

Zizur Nagusia

Kultura Patronatuak Eskuz Banakako Torneoa eratu du

■ Kadete mailatik beherakoak izango dira bertan

Erredakzioa / Iruñea

ARDOY Eskuz Banako I. Torneo antolatu du Zizur Nagusiko Ardoy Kultura Patronatuak, benjamin aurrekoak, benjaminak, alebinak, infantilak eta kadete mailan. Hau da Nafarroan antolatzen den mota honetako lehen txapelketa. Izena emateko epea urtarrilaren 20ra arte dago zabalik, eta parte hartu nahi duten guztiek 18 25 00 edota 18 24 87 telefonoetara hots egitea besterik ez dute, goizeko bederatzietatik ordu bietara, eta arratsaldeko lauretatik zazpietara. Behin izena eman duten guztiak zenbaita, kanporaketen, ordutegien eta partiduen egutegien zerrrenda ezagutaraziko da.

Profesional eta afizionatu mailetan urte osoan zehar txapelketak, adiskidantza partiduak eta mota guztietako lehia-

ketak badaude ere, adin txiki-koen mailen artean ez da horrela gertatzen, eta benetan urriak dira jubentzetatik behera ari direndako antolatzen diren topaketak. Horretaz oharturik, Zizur Nagusiko Kultura Patronatuak erabaki du haurrei norgehiagoka aritzeko aukera ematea, eta Ardoy elkarteak Txapelketa hau antolatzean asmoa izan du pilotari gazteak buruz burukoarekin ohitzea eta euren joko eta posibilitateak garatzea.

Kontuan harturik pilotarien adina, zenbait neurri hartuko dira partidu horietarako. Esate baterako, benjamin aurreko, benjamin eta alebinetan frontoiaren zabalera murriztu egingo da, eta partiduen tanteoa ere ohi baino txikiagoa izango da. Infantil eta kadete mailan lau eta erdikoaren barruan jokatuko dute, ohi den bezala. X

Sunbilla

Gaur amaituko da Neguko Zikloa Skunk taldearen kontzertuarekin

■ Langarra Euskara Taldeak antolatuta, asteazkenean hasi zen Legasan eta Narbarten

Erredakzioa / Iruñea

MALERREKAKO Langarra Euskara Taldeak Neguko Zikloa antolatu du aurtan ere, antzerki, zinema, ipuin kontalariak eta kontzertuak barne. Gero eta partehartze eta ikusmin handiagoa sortzen ari da Langarrak prestatuturiko ekitaldien inguruan.

Aste honetan izan dira emanaldiak, asteazkenean hasi baitziren, Legasan eta Narbarten. Legasan zaldiak eta poniak izan ziren eta Narbarten ipuin kontalariak aritu ziren eskoletan. Atzo Iturengo Herriko Etxean zinema emanaldia izan zen haurrentakoa, eta Zubietan, Lasketa Kabaretaren antzerki taldearen emanaldia. Gaur izango da kultur ziklo honen azken eguna. Sunbillan 20.30etan Uli beltza elkartean afaria dago prestatuta, eta afaldu eta gero kontzertua izango da Iparraldeko Skunk taldearen esku-tik. Gaueko 22.00etan izango da hori. X

Tafalla

Olentzero Saria jaso zuen AEK-ko joan den igandean

■ «60ko hamarkadatik euskararen alde egindako lanarengatik»

Erredakzioa / Iruñea

AURTENGO Olentzero Saria jaso zuen joan den igandean AEK-k, «euskara eta euskal kulturaren alde egindako lanarengatik». Saria herriko EKI kristaldendako Miguel Agerri eta Javier eta Marisa Gomezek egindako eskultura da, dena kristalezkoa eta Olentzeroaren irudia zizelduta duena.

Saria Nafarroako Plazan eman zuten Olentzeroaren antolatzaileek, Tafallako karririk joan den igandean zeharkatu zituen segizioaren amaieran. Amaia Bastan antolatzaileetakoak azaldu zuten AEKri saria ematearen arrazoia, eta talde honek 60ko hamarkadan hasitako lana goraiatu zuen. «Euskara berreskuratzeko lana izan da talde honena, eta ikasleak irakasle bilakatu ziren gero eta tafallar gehiago euskalduntzeko». Eskultura Asun Aierri eta Maria Feli Markina irakasleek jaso zuten. X

Mendi publikoen
bilakaera Nafarroan

Bertzen ere badira pinuak, zuhaitz mota ugariaren artean.

JOXE LACALLE

Lur publikoa, erabilera pribatua

Nafarroako mendi eta baso publikoen kudeaketari buruzko tesia egin du Iñaki Iriarte iruindarrak

Nafarroako mendi publikoen bilakaera ikertu du Iñaki Iriarte iruindarrak, joan den irailean Zaragozan aurkeztu zuen tesian. Historia ikasi zuen, baina Ekonomiako irakasle da bertako unibertsitatean. Tesian Nafarroan mendi eta basoak kudeatzeko zegoen sistema berezia, nekazaritzaren eragina eta basoen ustiaketa jorratu ditu. Gure basoen egungo egoera ere izan dugu mintzagai.

Edurne Elizondo / Iruñea

GAUR EGUN Nafarroako basoen % 45 pribatuak direla jakinarazi zuen orain astebeite Nafarroako Basogintza Elkartek prentsaurrekoan. Egungo datu hau ulertu ahal izateko, ordea, orain arte gertatutakoa aztertzea komeni da, eta horixe egin dugu Iñaki Iriarte Historia lizentziadun eta Ekonomia irakasle iruindarrekin. XIX. mendearen erdialdea abiapuntutzat hartuz, hain zuzen, 1935. urtera arte Nafarroako mendi publikoen bilakaera ikertu du Iñaki Iriartek, joan den

irailean aurkeztu zuen tesian.

Orain zazpi bat urte Geronimo de Ustariz institutuaren eskutik Nafarroako nekazaritzari buruz egin ikerketak eman zion Iñaki Iriarteri Nafarroako mendi publikoek buruz tesia egiteko ideia. «Lur pribatuak aztertzean konturatu nintzen lur publikoak ugariak zirela». Pentsatu eta hasi.

XIX. mendearen erdialdean Nafarroako mendien % 60 publikoak ziren, 600.000 hektarea inguru. Horietatik 80.000 baino ez ziren Estatuarenak. Kopuru hau nabarmena da Estatuak beste hainbat herrialdeetan zegoen portzentaiarekin alderatuz gero —mendien % 23 ziren, batez beste, publiko—. Nafarroan mendiak eta basoak kudeatzeko garai horretan zegoen sistemak bazuen zerikusirik, Iñaki Iriarteren ustez. Izan ere, beste herrialdeetan hori Sustapen Ministerioaren eskuduntza zen, eta Nafarroan, aldiz, 1841. urteko legeaz geroztik Diputazioak hartu zuen bere gain ardura hori. Udalek ere bazuten zer erranik gai honi buruz gure herrialdean.

Desamortizazioak izan zuen eraginik Nafarroan, baina Iñaki Iriartek prozesu honek gure herrialdean izan zituen bitxitasunak azaldu dizkigu. Izan ere, lur gutxi saldu zen Nafarroan desa-

mortizazio garaian; urratu, berriz, asko. Datu kontraesankor hau Iriartek argitu digu: «Nahiz eta lur gutxi saldu, praktikan, pribatizatu egin zen. Hau da, Diputazioaren eta udalen ardura zen artean mendi publikoen kudeaketa, baina horien erabilera gero eta pribatuagoa».

XIX. mendearen amaieran nesi-

«Nafarroan, beste leku batzuetan ez bezala, Diputazioaren eta udalen ardura zen mendi publikoen kudeaketa»

kazaritzak izan zuen hedapenak azaltzen du garai hartan urratu zen lur kopuru handia. Nafarroan, izan ere, lurra saldu aurrerik urratu egiten zuten nekazariak. Besterik gabe hartu egiten zuten. Udalaren bitartez egindako urratze arbitrarioak ere aipatu dizkigu Iñaki Iriartek: «Nahiz eta printzipioz lur horietan nor sartzen zen eta nor ez kontrolatzen salatu, azkenean aberatsenek eskuratzen zuten lur gehiena. Berdin gertatzen zen Diputazioaren bitartez egiten zutenean». Honela, saldutako

lurraren bikoitza izan zen garai hartan urratutakoa.

Bardeetako lurra neurri gabe urratu zituzten • Bardeetako lurra nola urratu ziren aipatu digu Iñaki Iriartek prozesu honen guztiaren adibide. «Hasiera batean Nafarroako koroarenak ziren Bardeak, baina gero Estatuaren eskura igaro ziren. Estatuak, hala ere, ez zituen Bardeak inoiz kontrolatu. Kontrola Bardeak ustiatzeko baimena zuten herrien esku zegoen, hau da, Erriberako eta Erronkari eta Zarautziko bailareetako herri erabikideen esku. XIX. mendearen erdialdean arte batez ere larretarako erabiltzen zituzten Bardeak. Aragoiko Pirinioetako hainbat herritako artzainak ere bertan biltzen ziren. XIX. mendearen amaieran, aldiz, lurra urratzen hasi ziren Bardeetan ere, nekazaritzaren hedapenaren eraginez. Neurri gabe urratu zuten lurra, Bardeetako araudia artzaintza arautzeko asmatu zuten, ez baitzuen inolako mugarik aurikusten. XX. mendearen hasieran, gainera, hainbat aurrerapen teknologiko izan zirela medio, nekazaritzak bultzada jaso zuen». Azkenik, 1935. urtean egindako araudiak legitimatu egin zuen ordura arte Bardeetan egindako guztia.

Lur publikoak ere aberatsentzat • Nafarroako mendi publikoen ustiapenari buruz gure herrialdean aspalditik izan den «ideia okerra» ere azaldu nahi izan digu Iñaki Iriartek: «Beti uste izan da pobreenek bizirik irauteko balio zutela Nafarroako mendi publikoak, baina ez da horrela izan. Mendien ustiapena banatzeko enkantea egiten zuten, eta nahiz eta parte hartzeko eskubidea denek izan, aberatsek zuten, noski, gehiena eskuratzeko ahalmena. Ardi gehienak eurek bazituzten ere, eurek eskuratzen zuten lurra urratuz eremurik zabalena ere». Iriarteren idurikoz, beraz, «mendien ustiapena berdintzailea zela dioen iritzia ez da zuzena. Geografo batzuek berdintasunaren ideia azpimarratzen dute oraindik hala ere, gizarte klaseen arteko borroka ezkutatzeko asmoz edo».

Iñaki Iriartek azaldu duenez, «nahiz eta Nafarroan beste sistema bat izan, Europako mendealdeko herri guztietan gertatu zena gertatu zen hemen ere eta aberatsek eskuratu zuten mesederik handiena».

Basogintzak batez ere Nafarroako iparraldean izan duen garrantzia, hala ere, ezin uka daiteke. Izan ere, «oihan aberastasun handia izan du eta badi oraindik ere Nafarroak», Iña-

Mendi publikoen
bilakaera Nafarroan

ki Iriarteren idurikoz. XIX. mendean bukaeran aberastasun hori eskuratzea, hala ere, ez zen erraza, «arrunt zaila baitzen mendi askotara iristea, eta teknika ere garatu gabe zegoen oraindik». XX. mendearekin egoera aldatu egin zen, paper industriak eta trenak eraginda. «Iratiko eta Plazaolako trenek garraioa nabarmen erraztu zuten. Eskaera ere igo egin zen».

Basoak ustiatu arren, izan duten bilakaera eta garapena nahiko ona izan dela azpimarratu du Iñaki Iriartek, «iparraldean batez ere». Bertan, egurra moztu arren, oihañbertzeari ere laster ekin zioten eta basoak zaindu behar direla konturatu ziren, kontzientzia sortu zen. Iparraldean, gainera, bertako zuhaitz motak landatu izana nabarmendu du Iriartek, «funtsezkoa baita». Hori dela eta, XIX. mendean erdialdetik 1935. urtera bitartean —Iriartek bere tesian aztertu duen garaian, alegia—, «basoen egoera ona izan zen».

Nafarroako erdialdean eta Erribera aldean, hala ere, gauzak ez ziren berdin gertatu, eta basoen ustiaketa ondoen, oihañbertzea ez zen izan iparraldean bezalakoa. «Pinuak landu zituzten batez ere, luraren egoera txarra zela-eta erosioa geldiarazteko asmoz». Pirinioetako hainbat basoetan ere, pinuak erruz landu zituzten 40ko hamarkadan, baita Espainian ere, Huelva aldean, eukalipto ugari frankismoaren garaian, Iñaki Iriartek azaldu digunez, «azkar hazten baitira». Kontserbazioaren aldean produktibitateari eman zioten lehentasuna, zuhaitz mota horiek lurriari egin ziezaioketen kaltea kontuan hartu gabe.

Pinuena, hala ere, aspaldiko kontua da, XIX. mendetik datorren eztabaida baita. «Oihanen galera da arazo nagusia». Hori dela eta, pinua degradatu egin den luraren erosioa geldiarazteko landu izan dela defenditzen dute batzuek; beste batzuek, aldiz, pinua azkar hazten denez, produktibitatea aregotzeko egin izan dela. Izan ere, haritzak 80 urte inguru behar ditu hazteko eta pinuak, berriz, 25 besterik ez.

Iñaki Iriarteren ustez, hala ere, nahiz eta produktibitatea handitzeko hainbat baliabide erabili, «basogintzaren sektorea, oro har, ez da oso garrantzitsua Nafarroan, ezta Estatuan ere, historikoki Danimarka eta Suediatik inportatu baita egurra».

Horrek ez du erran nahi, edonola, Nafarroako mendi eta basoak ustiatzen ez direnik. Nafarroako Basogintza Elkarteko ki-deek joan den astean plazaratu zuten, hain zuzen, «egurraren benetako merkatua sortzea» helburu duen *Compostela-Bosque* programaren barruan —urtearekin batera amaituko da— 496 milioi pezeta (19,84 milioi libera) inbertitu dituzte azken hiru urteetan, besteak beste, intxaurrondo landaketa esperimentalak abian jartzeko asmoz. Nafarroak 26 milioi pezeta (milioi bat libera inguru) sartu ditu programa honetan.



Urbasako paisaia ageri da argazkian.

ALBERTO BARANDIARAN

«Ordura arte egindako guztia legitimatu zuen 1935. urteko Bardeetako araudiak»

«Iratiko eta Plazaolako trenek egurraren garraioa nabarmen erraztu zuten»

«Desamortizazioarekin, Diputazioaren eta udalen ardura zen artean mendi publikoen kudeaketa, baina horien erabilera gero eta pribatuagoa»



Iñaki Iriarte, tesiaeren egilea.

OSKAR MONTERO

«Oreka bilatu behar da»

IÑAKI IRIARTEK bere tesia prestatzen eman ditu azken urteak, orain dela zazpi Geronimo de Ustariz Institutuan egin ikerketak landu zuen gaia jorrazteko grina piztu ondoren. Joan den irailean tesia aurkeztu baino lehen, milaka agiri irakurri behar izan ditu Nafarroako Administrazioari Artxi-boan. «Mendi publikoak izanik, legez, edozer gauza egiteko baimena behar zen eta bertan daude gordeta eskaera guztiak». Horietako batzuek ezer gutxi erakutsi badiote ere, beste batzuetan herri askotako errealtatearen isla aurkitu du, «herri horietako biztanleen arazo eta beharrak aipatzen baitzituzten».

Nafarroako mendi publikoetako tesia egin ondoren, gure herrialdeko basoetako egoera —ipa-

rraldean batez ere— nahiko ona dela ondorioztatu du Iñaki Iriartek, «oihañbertzea berehala hasi baitzen». Hala ere, arazoak egon badaude, eta badira, bere ustez, gaur egun mendi edo basoen jabeek kontuan hartu beharko lituzketen hainbat gauza, «mendi edo baso horien balioa ez baita dirutan bakarrik neurtzen». Ingurugiroan duten garrantzia, eta, oro har, gizartearen onerako izan dezaketen eragina nabarmendu du Iñaki Iriartek. Hori dela eta, baso eta mendiak zaindu eta gorde egin behar direla gaineratu du.

Baso eta mendiak gordetzeko moduen artean parke naturalak aipatu ditu adibidetzat. Hala ere, «nonbait parke naturala egiten bada, bertako jendea proiektu horretan

inplikatu beharra funtsezkoa dela iruditzen zait», azaldu digu Iñaki Iriartek, «ezer gutxi lortuko baita bestela eginez gero». Mendiari eta basoetarako esker bizi den jendea badagoela, finean, ezin daiteke ahaztu, Iriarteren irudikoz. «Oreka lortu behar da funtsean, hau da, baso eta mendietan lan egiten dutenek konturatu behar dute ezin dutela nahi dutena egin. Baina era berean, ezin zaie langile horiei guztia debekatu. Alde bien arteko oreka bilatu behar da».

Iñaki Iriartek Huescako hainbat eta hainbat herri gertatutakoa aipatu du. Bere ustez, bertako Administrazioak ez baitu zuzen jokatu historian zehar: «Herri asko dago hutsik. Arrazoi asko aipa daitezke hori ulertzeko, baina oihañ Administra-

zioari ezin zaio bere erruaren zatia ukatu». Berrogeiko hamarkadan Pirinioetako baso askotan oihañbertzea pinuekin egin zutela dio Iñaki Iriartek, «Estatuak baso osoak ere erosi zituen askotan, eta hori bertako jendea alde egitera behartzea da».

Nafarroan halakorik gertatu ez bada izan da mendiak zuzenago kudeatu direlako. «Ondorioz, despopulazioa txikiagoa izan da eta herrietan aberastasun gehiago dago».

Oihañbertze politika egokia aukeratu edo ez, hala ere, ez da basogintzaren esparruan dagoen arazo bakarrik, Iñaki Iriarteren ustez. «Kontserbazioaren aldean produktibitateari ematen zaio askotan lehentasuna, eta hori batzuetan

arriskutsua da» aipatzen du. Gainontzeko arazo horien artean suteena aipa daiteke, nahiz eta Nafarroan oso ugariak ez izan. Hala ere, gure herrialdean dauden zuhaitz motak direla eta, neguan ere gertatzen dira, «eguraldia oso euritsua ez denean, batez ere». Kiskaltzen den mendi edo baso zatiaren galera ez da suteek eragiten duten arazo bakarrik. Orain hilabete batzuk, adibidez, Greenpeace talde ekologistak salatuz zenez, badago egur errearen saltzen duen mendi eta baso-jabe asko. Gai horrek ere kezka anitz sortzen dizkio Iñaki Iriarteri, eta bere ustez «erre diren mendiak ustiatzea debekatzen duen legedia onartzea» da nahita eragindako suteen arazoa konpontzeko hartu beharreko neurria. X

Xanti Begiristain

Jean Haritschelhar, Haritxelar ala Haritxelhar, nola ote da?

■ Egia esan ez, pentsa batere erraza denik modu zuzena zein den jakitea. Esate baterako, Elhuyar-ko Hiztegi Entziklopedikoan Haritxelar dago jarrita, eta ez didazue esango entziklopedia hori zaharra dela edo ez dela batere fidagarria. Beste alde batetik, EGUNKARIAK Haritxelhar erabiltzen du, oso oker ez banago behinik behin. Gehien harritzen nauena da, Euskaltzaindiko burua berbera erdaraz sinatzen ikuste. Alegia, Euskaltzaindiak ateratako arauen agirian, honela izenpetu zuen euskaltzainburu jaunak 1995eko otsailaren lehen, hots, Jean Haritschelhar, eta batzuk oso buru azkarrak ez garenez, azkenik nori jaramon egin behar diogun jakin gabe gelditzen gara. Kasu honetan, euskaltzainburua eta beste bi elkargoak ere gauerdiko ahuntzaren eztaba ez direla uste dut; hortaz, horra hor nire zalantza eta galderak: Nork dauka arrazoi? Nor ari da jokatzeko modu erdugarrarian?

Nori jarraitu behar diogu? eta abar, eta abar. Jakina, ni ez naiz nor Jean jaunari bere deitura nola idatzi behar duen esateko, baina hala eta guztiz ere, nik, nire ezjakintasunean bada ere, oraindik ikusten ditut gauza arraro eta kontraesankorrak; adibidez, inork jar al dezake zalantzan euskaltzainburuaren deituraren euskaltasuna? Nik uste dut nabarmen dagoela euskalduna dela. Eta orduan zer gatik erdaraz idatzi behar hori? Ez dakit, agian oraindik bere deitura euskaratu ez duelako izanen da. Baina horrela balitz ere, orduan iruditzen zait, Jean jauna ez litzatekeela adibiderik egokiena ematen ariko euskal herritarren aurrean, zeren eta behin baino gehiagotan, eta gainera hainbat eta hainbat lekutatik, entzun baitugu komenigarri litzatekeela gure deitura euskaldunak euskal grafiaz idaztea. Baina kasu honetan zein ote da euskal grafiaz idaztea, esaterako Casanova horrela idazten dute denek, eta ez batzuek Casanova, beste batzuek Kasanoba, eta azkenik, beste batzuek Casanoba. Honekin guztiarekin esan nahi dudana bakarria da, uste dudala badela garaia irizpideak finkatzeko eta alor hauetan ere batasun handiagoa lortzeko, bestela Euskal Herri honetan askotan badirudi norberak bere aldetik jotzen duela, besteen iritzia kontuan hartu gabe eta irizpiderik finkatu gabe. Gauzak horrela, honako bitxikeriak gertatzen zaizkigu sarritan: hau da, erdal izenak euskal grafiaz idaztea eta euskal deiturak, aldiz, erdal grafiaz, adibidez: Montxo Armendariz, Karlos Ar-

guiñano, Txema Aranaz, eta abar. Beste kasu batzuetan izenak behar bezala baina deiturak, berriz, ez erabat euskaraz, konparaziora: Jorge Oteiza, Ladis Galarza, Juan Mari Arzak, Odon Elorza, Guillaume Irigoyen Txomin Heguy, Jose Antonio Ardanza, Ayerdi Irigaray, eta abar. Ez dut oso ongi ulertzen zeren eta, kasu askotan behinik behin, deitura horiek beren toponimoak baitutuzte, eta leku-izen horiek kasu honetan, horrelakoak dira: Oteitza (Nafarroako bi herri), Armendaritze (Iparraldeko herria), Hartzak (animaliak, edo «hi hartzak»), Argiñao (Bizkaian eta Nafarroan), Elortza (Arabian, Bizkaian, Nafarroan: Elortz, Elortzibar), eta abar. Beste kasu batzuetan, adibide garbiak daude, esate baterako: Ramon Irigoien, Joan Mari Irigoien, Alfonsito Irigoien, Julen Hegi, ardantze, ardantzale... Adibide hauek guztiak atera ditut, egunero telebista, prentsa, agiri eta abarretan



agertzen diren artetik. Era berean, oso klasikoak da, batez ere ETBn, Ipar Euskal Herriko deitura asko ez idaztea euskal grafiaz (Etcheverri, eta abar), baina Hegoaldekoak bai, baita erdaldunak ere, adibidez, Bakero. Edo, agian sinetsi beharko ote dugu Goizuetako futbolariaren NANean Bakero jartzen duela? Apika bai, auskaldo! Honekin ez dut esan nahi Bakero honela idaztearen aurkakoa naizenik, ez; nahi nukeena da, Euskaltzaindiak oraindik ez badu atera afera honi buruzko behin-betikoa, laster atera dezala, eta edozein kasutan ere, koherentzia handiagoa erakutsi dezagula denok; batez ere, goiko mailakoek, adibide egokiago eman dezaten eta gainerako guztiok anima gaitzen beren bidetara jarraitzea.

Erreparatu al diozue, esaterako, Iruñeko Ainguru Epaltza idazleak garai batean Epaltza sinatzen zuela eta, gaur egun, berriz, Epaltza? Horri oso gaizki deritzot.

Portzierto, jakinarazten dizuet bigarren aldiz hasi naizela tramitazioa egiten nire deiturak NAN delakoan euskal grafiaz idazteko; ea oraingoan bukaeraino iristen naizen. ■

Klasiko bitxi, arront klasiko

Joxemiel Bidador

Euskal noel kanta zenbaitez

■ Zailgia zatekeen eguberrietan ez dihardutea egun hauetan. Niketz aprobetxatu nahiko nuke zenbait euskal bilantziko zaharren berri hemen emateko. Gabon kanten jatorria aspaldiko kontua dugu. Zegoenekoz 528. urtean Auxerreko Kontzilioan latina eta mintzo herrikoia nahasiz hornitu kantak galerazi zituzten poptzar katolikoek. Nabari da Elizaren liturgian herriak ezer gutxi ekar zezakeela, *plebs inculta*, eta hortik, karrikan kantatzeko sortu bide zen noel kanta. Euskaraz ezagun den partitura zaharrena Eresbilek Errenterian duen liburutegian gordetik dago; hau da 1705eko *Toño al nazimiento de nuestro señor Jesucristo* Juan Telleriak kausitu egin zuena Zarauzko Aia auzoko Laurgain jauregian. Bertsoek tetrapodio daktillikoak omen ditugu, silaba neurri ezberdinekoak: «Eder dek olaan gabia / Larre onean ardia / Nafarra baina obe diagu / Zaragozako zuria / Brindatzen diat zeledon / Onixek egiten dik on. Mende erdi bat geroago honako orri hau agertu zen Bilbon, *Villancicos que se han de cantar en el real e imperial convento de N.P.S. Fco. de la M.N. villa de Bilbao en los solemnes maytnes del Nacimiento de N.S. Jesucristo*. Noel kanta hauek eliz hortako organojolea zen Fr. Martin Oaraveytia aitak musikatu zituen. Lau arrabizendako musika da Fr. Juan Ruiz Larrinagakoak argitaratu eman zuen 1936ko abenduaren 26ko *La Gaceta del Norte* egunerokoan *Un villancico vasco cantado en 1755* izenburu azpian: «Nay duen ezquero sein ederrac / Arzairen trajean etorri / Canta dezagun arzal onec / Tonadilla ederrorri». Urte hauetan ere, Historia Erret Akademian gordetzen den *Guernicaco gabon-cante*. Hurte 1764: *muxhil ta vizcaltar baten artean hasmenta duen antzertilana izkiriatu zuen Sebastian Antonio Gandarak Madrilan*. Egilea Larramendiren beraren baimena lortzen ahalegindu zen, eta Andoingoak eman ez ezik, honela ihardetsi zion: «Giputz labaina, dirudizuna, lausengaz ta churiquetaz apaindua». Ordainetan, 1762an Azkoitian atera ziren Sor Luisa de la Misericordiaren *Gavonsariac edo aurtengo gabonetan Azcoitico eleiza nagusian cantatuko diran gabon cantac edo otsaldiac igorri zizkion*. Naski moja izen horren azpian Peñaloridako kontearena zetzala, hau da, Xabier Maria Munibe Idiáquez, Herriaren Lagunen Elkarteburua zena. Honetara iritsirik, ezin dugu aipatzeko laga Pedro Ignazio Barrutiá Basagoitia aramioarraren ekarpena. Ibarrako Zalgo auzoan sortu ere, Arrasateko eskribaua izan zen 1711 eta 1752 urteen bitartean. Han zegoela *Gabonetako ikuskizuna antzertilana* idatzi zuen, argitaratu gabe gelditu zena. Juan Carlos Guerrak idoro eta Azkueri bidali zion, eta honek *Euskalzale* aldizkarian 1897an agertu zuenean ezagutzera eman zen lehenbiziko aldiz.

Arantzazuko artxiboan XVIII. eta XIX. mendeetako bilantziko partitura ugari badago, gutxi batzuk euskaraz eginak, eta beste batzuk nahiz erdaraz egon, azkeneko kopia euskaraz dute. Adibide batzuk aipatzearren, Miguel Oruñaren 1769ko *Pastorela con violines y trompas*: *Cer guertatzen da mendit orretan*, Fr. Agustín Etxeberriaren 1779ko *Villancico a quatro a la Epiphania Euquiric echean bear dezun arguia*, edota Frai Jose Ignazio Larramendiren 1825eko *Ceruco aingueruac arzayal*.

Mende honetara etortziz, oroitu behar da Bizkaiko kantez osatu lehendabiziko bilduma Durangoko Bartolome Ertzillaren *Colección de cantos vizcaínos incluso los de los plateros y del duranguesado arreglados para canto y piano* lana dela, Bilbon agertua, Luis Ernesto Dotesio Paynterren etxean, 1900. urtea baino lehen. Berargitalpen faksimil bat Durangon agertu zen 1988an. Musika aldetik huts gutxi diti, baina testuari dagokionez ugariak badira. Ertzilla, Bilboko Santa Ana elizan 1892an estraineiko aldiz kantatu zen *Mestas sarritan* gabon kanta ospetsuaren musika egilea dugu, letra ordea Balbino Garitaonaindia Albizuri durangarrak egina da.

Ahitzeko, eta Tuterako haurrek kantatzen duten bezala, *esperimentuz* jantzitako pertsonai horren etorki eriberatarra aldarrikatu nahiko genuke hemendik, izan ere Pueiotik goiti darabilen izena itxuraldatze hutsala baita. Banu Gasiren askaziok orok jakin badakigulako Olentzeren hitza udako solstizioa izendatzeko arabez dugun hitzirik eratortzen dela: *Alhantzaro*. ■



Posada de los Portales Nazioarteko I. Irekiko partida, 1995eko abuztuaren hasieran jokatu.

Mario Gomez (Bizkaia), 2.465 ELOkoa — J. L. Fernandez (Bizkaia), 2.525 ELOkoa.

1.e4,c5; 2.Zf3,d6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zf6; 5.Zc3,g6; 6.Ae3,Ag7; 7.f3,Zc6; 8.Dd2,0-0; 9.0-0-0,Zd4; 10.Ad4,Ae6; 11.Eb1,Dc7; 12.h4,fG-c8; 13.h5,Da5 14.a3,aG-b8; 15.g6,h-g6; 16.g3,b5; 17.Af6,f6.

Jokaldi bakarra. Damaren sarrera galarazten du (Dh6). Damak peoia harrapatuko balu, 'b4' izanen litzateke kontraerasoa.

18.Zd5,Dd2; 19.Gd2,Ad5; 20.Gd5,b4; 21.a4, Gb6; 22.Ab5,Af8; 23.hG-d1,Ae7; 24.1G-d2,Eg7;


25.Ea2,a6; 26.Ad3,Gc5; 27.Ae2,Gc2; 28.Gc2,b3 xa; 29.Eb1,c2 xa; 30.Ec2,Ad8; 31.Ac4,a5; 32.Ga5,Gb2 xa; 33.Eb2,Aa5.

Errakuntza handirik ezean, berdinketa izanen da. Alfalak kolore ezberdinetakoak izateak bermatzen du hori.

34.Eb3,f5; 35.f5,f5; 36.Ad5,Ae1; 37.Ec4,Ag3; 38.a5,f4; 39.Ed3,f5.

Ikus koadroa. Berdinketa aienatu da, oker itzel honekin. Beltzek bota egin dute partida.

40.Ee2,Ah2; 41.Ef1,Ef6; 42.a6,Ee5; 43.Ac6. Koroazioa saihestezina da. Azken orduan, akats batek erabaki zuen partida.





Basa Faunaren Babeserako Alde izendatuko dituzte Etxauriko haitzak.

JOXE LACALLE

Etxauriko haitzak basa faunaren babeserako alde izendatuko ditu Nafarroako Gobernuak

Nafarroan gelditzen diren hiru Bonelli arrano bikoteetako bat bertan bizi da

Bonelli arranoa babesteko asmoz, basa faunaren babeserako alde izendatuko ditu aurki Etxauriko haitzak Nafarroako Gobernuak, bertan bizi baita egun Nafarroan gelditzen den hegazti honetako bikote bakonetako bat. Hori dela eta, orain arte Etxaurin egin izan diren jarduera batzuk murriztu egingen dira. Bonelli arranoa babesteko plana ere prestatu du Nafarroako Gobernuak, Fauna Babesteko eta Kudeatzeko Legeari jarraituz, desagertzeko arriskua baitu Bonelli arranoak.

Edurne Elizondo / Iruñea

NAFARROAKO GOBERNUAK basa faunaren babeserako alde izendatuko ditu aurki Etxauriko haitzak. Nafarroa osoan hiru Bonelli arrano bikote besterik ez dago gaur egun, eta aipatu haitzetan bizi da horietako bikote bat. Beste biak, bata Galipentzun eta bestea Irunberrin bizi dira. Bonelli arranoa, hain zuzen ere, arriskuan diren espezieen artean sailkatu du Nafarroako Gobernuak.

Hori dela eta, Fauna Babesteko eta Kudeatzeko Legeari jarraituz, Bonelli arranoa babesteko plana jarri du martxan Nafarroako Administrazioak. Planak jasotako neurrien artean dago Etxauriko haitzak basa faunaren babeserako alde izendatzea. Hortaz, murriztu egingen dituzte orain arte bertan egin izan diren jarduerak.

Etxauriko haitzetan eraikinak egin ahal izateko, alde batetik, baimena eskuratu beharko da eta, beti ere, eraikuntzak ezin izan dio Etxauriko haitzen kontserbazioari kalterik egin. Bestetik, hartxirriak edo hondarra ezin izan dira Etxauritik atera, ezta harrobi edo meategiak ustiatu edo landaretza erre. Ha-

laber, aurretik antolatutako kirolak ezin dira bertan egin, eta kanpaldiak egitea ere debekatua izanen da.

Baimena edukiz gero, berriz, basoak ustiatu ahal izanen dira. Hala ere, betebeharrak guztiak —bai basoen ustiaketa bera, mendien

hobekuntza eta berreskurapena edo seinaleztapena—, Bonelli arranoaren ugaltze garaitik kanpo —martxoaren lehenetik

«Gutxi barru desager daitezke»

HEGAZTI mota autoktono eta egoilea da Bonelli arranoa Nafarroan. Gurean herrialdearen erdialdean bizi da, eta Europan, herri mediterraniarrenetan. Gaur egun hiru bikote baino ez dira gelditzen Nafarroan. Espainian, berriz, 700 bikote inguru daude —Europako kopururik handiena—.

70eko hamarkadaren erdialdean zazpi bikote zeuden Nafarroan eta 80koaren hasieran, berriz, bost besterik ez. Egun dauden hiru bikoteek hegazti mota honen beharakada frogatzen dute. Desagertzeko arriskua duten espezieen artean sailkatu du, hain zuzen, Nafarroako Gobernuak Bonelli

arranoa.

Nafarroan gertatu den beharakada horren arrazoiei dagokienez, hegazti helduen artean izan den heriotza tasa altua aipatu beharra dago. Azken hiru urteetan, hain zuzen, hiru Bonelli arrano heldu aurkitu dituzte hilik, bi argindarraren eraginez eta hirugarrena tiro batez.

Lur-Adiskideen Nafar Elkarte (LANE) kide den Jose Carlos Irurzun biologoak aipatu dizkigu Bonelli arranoari buruzko datuok. Hegazti honen etorkizunari dagokionez, ez da batere baikor, eta azken urteetan Bonelli arranoen kopurua igo ez izana kezka garria dela azaldu digu. Izan ere,

«nekez ugaltzeaz aparte, jaiotako Bonelli arranoak ez dira Nafarroan gelditzen». Arrisku gaien artean, berriz, ehiztariak eta naturguneen gutxitzea aipatu ditu LANEko biologoak. Hori guztia dela eta, hemendik gutxira Bonelli arranoa desager daitekeela esan du Jose Carlos Irurzunek.

Hori gertatu aurretik egin beharrekoak buruz ere mintzatu zaigu LANEko kidea. Funtsean, bikote ugaltzaileen artean lege kanpoko ehizak eragindako heriotza tasa murriztea da lortu beharreko neurri garrantzitsuetako bat. Horrekin batera, argindarraren hariteria ere egokitu behar dela aipatu du Jose Carlos

Irurzunek, «elektrokutatze arriskua gutxitzeko edo desagertarazteko». Halaber, ugaltze garaian Bonelli arranoek izan behar duten lasaitasuna ere funtsezkotzat jo du, baita hegazti mota honen urteroko azterketa eta kontrola ere.

Nafarroako Gobernuak Bonelli arranoa errekuiperatzeko onartu duen planari buruz duen iritzia ere eman digu Jose Carlos Irurzunek. Bere irudikoz, «intenzio onekoa bada ere, neurri zehazgabeak aurrikusten ditu. Ikerketak baino ez dituzte egiten». Etxauri bezala, Bonelli arranoak bizi diren lekuak babestea egokitzen jo du, hala ere, LANEko kideak.

uztailaren azkenera bitartean egin beharko dira.

Murrizketa hauetaz landa, izanen dira beste batzuk ere. Etxauriko haitzetako basa faunaren babeserako aldearen gaitetik igaroko diren hegazkinak, adibidez, ezin izango dira 500 metrotik behera jaitsi. Halaber, komertzialak edo salpamendurako ez diren hegazkinak ingurune horretan 2.000 metroko altueran egin beharko dute hegan, gutxienez.

70eko hamarkadan
zazpi Bonelli arrano
bikote zeuden

Nafarroan, eta 80koan,
berriz, bost. Egun, hiru
bikote besterik ez dira
gelditzen

Bonelli arranoak
babeesteko eta hegazti
hauen kopurua
ugaltzeko asmoz plana
abian jarri du
Nafarroako
Gobernuak

Eskalatzaileei dagokienez, berriz, habietatik 100 metro baino gutxiagora dauden bideak ezin izango dituzte erabili, Bonelli arranoak bertan badira. Iruñea eta Lizarra batzen dituen errepi-dean eta Etxauriko harrobietara heltzen diren bideetan ez da murrizketarik gertatuko, ezta Etxaurin dagoen mendiko aterbean ere.

Bonelli arranoa babesteko plana martxan • Bonelli arranoa babestu eta hegazti hauen kopurua igotzeko asmoz onartu du Nafarroako Gobernuak plana. Oro har, plangintzak hiru helburu zehatz dituela erran daitezke: alde batetik, elektrokuzioa dela-eta, Bonelli arranoak eta gazteak ez hiltzea, ehizak eragindako arriskua murriztea eta Bonelli arrano ugaltzaileen kopurua igotzea.

Helburu horietako lehenengoa lortzeko asmoz, Bonelli arranoa babesteko ezarritako aldeetan arriskua eragin dezaketen argindarraren lineak kenduko dituzte hamar urteko epean eta Nafarroako Gobernuak debekatu egingen du, halaber, linea berriak jartzeko, beste hainbat neurrien artean.

Ehizari dagokionez, Bonelli arranoak habiak dituzten inguruan murrizketak ezarriko ditu hegazti mota hau ugaltzea nahi duen planak. Ildo berean, Bonelli arranoen kopurua igotzea lortzeko, basa faunaren babeserako aldeetan lasaitasuna bermatu nahi du Nafarroako Gobernuaren planak, ugaltze garaian batez ere.

Garai honetan arreta berezia eskainiko diete hegazti hauen habiei Administrazioak horretarako kontratatutako biologoek, espeziearen segimendua egiteko asmoz. X

◆ **Gotzon Gonzalez** ◆ Ludoland enpresako kidea

«Jostailuek ez dute sexurik»

J oan den ostegunaz geroztik eta datorren ostiralera bitartean, Ludoland enpresako kideek Iruñeko Eroskin jarri dute euren bulegoa. Gurasoek seme-alabentzat jostailurik egokienak eros ditzaten aholku ematea dute helburu. Gotzon Gonzalez Ludolandeko arduraduna da eta berarekin mintzatu gara jostailuez eta egiten duten lanaz.

Eduñe Elizondo / Iruñea

Jostailuek inguratuta aurkitu dugu Gotzon Gonzalez Ludolandek Eroskin jarri duen aholkularitza zerbitzuan. Bertan, seme-alabentzat erosi nahi duten jostailurik egokiena aurki dezakete gurasoek, Ludolandek salgai jarri dituen 140 jostailu ezberdinen artean. Iaz Gasteizen izan ziren Gabon garaian eta 9.000 guraso hurbildu ziren beraiengana aholku bila. Iruñean ere, barra-barra jotzen dute beraiengara Errege Mago-ek.

■ **Zer lan egiten duzue Ludolandean?**

Gurasoei informazioa eskaintzen diegu, hori da gure betebeharrak garrantzitsuena. Alde batetik, jostailuaren alderdi pedagogikoari buruzko argibideak eskaintzen dizkiegu, hau da, jostailu bakoitzak haurraren zein alderdi garatzen duen edo nolako materialaz egin dituzten, besteak beste; eta bestetik, gurasoei euren seme-alabentzat erosi nahi dituzten jostailu horiek ikusteko eta ukitzeko aukera ere ematen diegu. Izan ere, batzuek badakite zer erosi nahi duten guregana etortzen direnean eta erosi nahi duten hori ukitu eta benetan nolakoa erosi nahi duten aukera izaten dute Ludolandean. Beste batzuek, berriz, jostailurik egokiena eros-



Ludoland enpresako arduraduna da Gotzon Gonzalez.

JOXE LACALLE

teko aholku bila etortzen dira guregana.

■ **Zerk kezkatzen ditu gehien gurasoak jostailuak erostera-koan?**

Iruñean bezala iaz ere Gasteizen ikusi ahal izan genuenez, adina da gurasoen kezka nagusia, hau da, adin bakoitzeko zein den jostailu edo jokorik egokiena. Gai honi buruz, egia erran, ezer gutxi dakite gurasoek. Askotan, gainera, haurraren interesa baino, beraiena izaten dute kontuan.

■ **Gaur egungo haurrek zer eskatzen dute?**

Kontsumo gai guztietan bezala, publizitatearen eta batez ere telebista bidezko publizitatearen eragina izugarria da. Telebistan

agertzen dena eskatzen dute, beraz. Honek arazo bat sortzen du, hau da, azken finean, zeintzuk dira benetako beharrak eta zeintzuk publizitatearen bidez sortutakoak? Gurasoen lana gurea bezala, hortaz, aukeratzea da. Horretarako funtsezkoa da jostailuak aurretik ikusi eta aztertzea, denbora nahikoarekin erostea, finean. Jostailuei dagokienez, berriz, orain bizpahiru urte barra-barra erosten ziren bideokonsola eta antzekoetan beherakada gertatu da eta hori azpimarratzekoa da.

■ **Iragarkietan argi eta garbi bereizten dituzte neska eta mutilentzako jostailuak. Zer deritzozu horri?**

Jostailuek ez dute sexurik nire ustez, eta nesken eta mutilen arteko banaketa, beraz, ez dute jostailuek egiten. Publizitatea edo jostailua egin duen etxea dira diskriminatzaileak. Gure lana da horretaz jabetzea. Gainera, mutiak dira joera honen bidez gehien

diskriminatzen ditugunak, gaizki ikusten baitu gizarteak mutil bat panpinekin jostatzea. Eta, egia erran, helduen munduaren antza duten jolas horiek haurraren nortasuna garatzeko oso komenigarriak dira eta ez gaituzte kezkatu behar.

■ **Lehenagoko eta gaurko jostailuen artean ezberdintasun handia al dago?**

Gaur egun oso sofistikatuak dira jostailuak. Hala ere, jostailua bera edo bere itxura baino, jostailu horrek eragiten duen jolasa da garrantzitsuena. Haurraren irudimena edo sormena bultzatu eta poza eragin behar dio, atsegin izan behar du. Jostailuek, gainera, mundua nolakoa den erakusten dute eta hori ez dugu ahaztu behar. Horregatik, egungo haurrek gauza ezberdinak eskatzen dituzte, normala denez. Beste gauza da gurasoek haurrari jostailurik egokienak eskaintzeko duten aukera. Hau da, halako jostailu elektronikoa eta sofisti-

katuak bakarrik eskuratu beharrean, mota anitzeko jostailuak izatea komenigarriagoa da haurrarentzat. Baina ez naiz kopuruaz ari; jostailurik garestiena baino askoz eragingarriagoa da, gainera, gurasoak berak bere seme-alabarekin sortu edo egin duena.

■ **Gerra-jostailuak haurrarentzat egokiak diren edo ez aspaldiko eztabaida da. Zuk zer uste duzu?**

Ni ez nago gerra-jostailuen alde. Zer edo zer deuseztu edo suntsitu besterik egiten ez dituzten jostailuak gerra-jostailutzat ditugu guk. Hala ere, jostailuari askotan berari ez dagokion erantzukizuna egotzen zaio. Seme-alabei gerra-jostailuak ez erostea erabaki egokia da baina ez da nahikoa, halako jostailurik ez erosi arren, halako gerra-ereduak igortzen baitizkiete gurasoek seme-alabei askotan. Beste hainbat gauzaren ondorio baino ez da, beraz, gerra-jostailua.

s o s l a i a

Haurren mundua gertutik ezagutzen du Gotzon Gonzalezek. Irakasletza ikasi eta klaseak ere eman zituen garai batean. Psikologiari ere lizentziatu da, baina pedagogia aholkularitzat du bere burua, «hori

baita, nire ustez, izendapenik egokiena».

Jostailuen munduak erakarrira hasi zen Ludolandean lanean. «Joko, jostailu eta ludoteka zerbitzuak kudeatzen ditugu bertan». Horretaz gain, jostailuen ezaugarriak eta haurraren gain dute eragina aztertzen dituzte.

Jostailua sormena eta irudimena bultzatzeko tresnatzat du Gotzon Gonzalezek, «jokoa baita garrantzitsuena. Jaiotzen garen unetik beretik jostatzen gara, bai gure gorputzarekin berarekin bai beste hamaka gauzarekin. Eta joko hori, zorionez, ez da sekulan bukatzen».

«Kontsumo gai guztietan bezala, publizitatearen eragina izugarria da haurraren, eta telebistan agertzen diren jostailuak eskatzen dituzte»

P A N E LUCRANDO

ZALDI EROA

LIRIKAZ
HONATAGO
4
GAUR:
**BUNBA
BLAFF!**
APOLLINAIRE
BABIOL

Sagarrondoaren alboko trintxeran larrua jotzen dugunean, Bunba, berehala loratzen dira arbolak, Blaff, uneka erne eta ontzen dira...

...Fruituak, bunba, beren kolore gorrian, eta zintzilik daude arrama gainetan Blaff. Eta amodioa konpliztzeo istantean...

eskuetara erortzen zizkigu, bunba sagar humoak, eta azalik kendu gabe blaff, jaten ditugu, bunba, blaff.